

Ebazpena: R 44/2022

Espedientea: 4/2019

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 28an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita ESSL erakundearentzat 2015 eta 2016. urteetan nazioarteko uretan lan egin zuten arrantzale-marinelan lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 4/2019 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- ESSL zerga-egoitza Gipuzkoan duen sozietatea da, arrainaren handizkako merkataritzan diharduena. Horretarako, nazioarteko uretan alturako arrantzan diharduten itsasontziak ditu, egoitza-portua Pasaian (Gipuzkoa) dutenak.

2.- ZAEAk nazioarteko uretan arrantzatzen duten ontzi horietan lan egiten duten arrantzale-marinelan lan-etekinengatiko atxikipenak sartzeko betebeharra betetzen zen egiaztatzeko jarduketak egin zituen, eta, horren ondorioz,

eskumenik gabeko administrazioan sartzeari buruzko txosten bat egin zuen. Txostenaren arabera, ordainarazteko eskumena Estatuari dagokio.

3.- Zergapeko atxikitzaleak atxikipenak GFAn sartu zituenez, ZAEAk konturako diru-sartze horiek itzultzeko eskatu zuen, eta, GFAk uko egin zionez itzultzeari, 2018ko azaroaren 28an ZAEAk inhibitzeko errekerimendua egin zion GFARI, nazioarteko uretan arrantzatzen duten itsasontzietan lanean diharduten arrantzale-marinelan lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez, eta hark berretsi egin zuen bere eskumena 2018ko abenduaren 19an.

4.- 2019ko urtarrilaren 21ean, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen, eta Arbitraje Batzordean izapidetzen ari da 4/2019 espediente-zenbakiarekin.

5.- 2019ko urriaren 28an, GFAk eskatu zuen Arbitraje Batzordeak 13/2015 espedientean emandako ekainaren 28ko 6/2018 Ebazpenaren ondoreak zabaltzea erabakitzeke, Ekonomia Itunaren 68.Hiru artikuluan aurreikusitako prozedura bereziarekin bat etorriz.

ZAEAk ez zuen onartu eskaera.

6.- ZAEAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea bete ondoren, aurretiaz espedientea alderdi interesdun guztien eskura jarri eta gero, alegazioen izapidea eman zitzaien alderdi guztiei. Eraitza espedientean jasota dago.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Gatazka ez da ondoreak zabaltzeko prozedura bereziaren bidez izapidetu behar; izan ere, GFAk, demandatu gisa, ez du legitimazio aktiborik, 10/2017 Legeak Ekonomia Itunaren 68.Hiru artikuluari emandako idazketaren arabera, honako hau xedatzen baitu:

«Hiru. Baldin eta norbaitek auzi bat aurkezten badu ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordean, eta auzi horren muinean dagoen kasuaren oinarria jada ebatzita badago beste auziren batean Arbitraje Batzordeak emandako ebazpen irmo batez, eskatu ahal izango du auzia ebatz dadila ebazpen irmo horren ondorioak zabalduaz».

3.- Bi administrazioek ez dute auzitan jartzen gatazka honetan zehaztu nahi dela nork duen eskumena itsasoan, nazioarteko uretan, Pasaiako (Gipuzkoa) egoitza-

portuari atxikitako itsasontzietan, zerbitzuak ematen dituzten langile batzuei dagozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko.

4.- Itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileei ordainarazteko eskumena Arbitraje Batzorde honek 2018ko ekainaren 28ko 6/2018 Ebazpenean (13/2015 Espedienteari buruzkoan) jada ebatzi zuen, eta zuzenbidearen arabera zela deklaratu zuen Auzitegi Gorenak, ezetsi egin baitzuen ZAEAk ebazpen haren aurka jarritako errekurtoa 2019ko urriaren 4ko 1319/2019 Epaian (411/2018 Errekurtoa).

Arbitraje Batzordearen ebazpen hark, Auzitegi Gorenak berretsitakoak, Bizkaian egoitza zuen sozietate batek egindako tributu-kontsulta ebatzi zuen; aipatutako sozietateak ordainsariak ordaintzen zizkien beren lana Murtzian egoitza-portua zuen itsasontzi batean egiten zuten langileei. Kontsulta egin zen jakiteko zein administraziori (ZAEArri edo BFArri) ordaindu behar zitzaizkion PFEZen konturako atxikipenak, itsasoko langile horien ordainsariei zegozkienak. Arbitraje Batzordeak ondorioztatu zuen administrazio eskuduna zela itsasontzia atxikita zegoen egoitza-portuari zegokiona, eta ondore horietarako itsasontzia lantokizat hartzen zela.

lido beretik, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak, aipatutako 6/2018 Ebazpena eragin zuen Gatazka aurkeztu ondoren, idazketa berria ematen zion Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluari (hori da indarrean dagoena).

Idazketa berri horrekin bete egiten da itsasoko langileei ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumenaren inguruan dagoen arau-hutsunea, eta tripulatzailea atxikita dagoen lantokiaren kokapena ezartzen da irizpide gisa.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea nazioarteko uretan arrantzan diharduten itsasontzietan lan egiten duten arrantzale-marinelei ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena itsasontziaren egoitza-portua dagoen administrazioari dagokiola.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ESSLri.